

ERDI AROKO HIRIA

**VITORIA
GASTEIZ** 
turismo
& convention bureau

*Iragara
zainduz
oraina bizi
duen hiria*

ERDI AROKO HIRIGUNETIK BARRENA

Green Capitalaren historian
murgildu zaitez

ERDI AROKO 'ALMENDRAN' ZEHAR IBILI



'Obretan eta irekita' dagoen katedrala, harresien hondarrak, jauregi errenazentistak... Vitoria-Gasteizko Erdi Aroko hiriguneak, almendra formako jatorrizko trazadurarekin, hiriaren **historia** biziarazten du, nortasun propioa duten **merkataritza eta ostalaritza establezimenduak** dituen eremu batean. Murgildu zaitez Erdi Aroko hirigunean ibilbide irisgarri honekin.

1. SAN PEDRO ELIZA



Hiriak hiru harresi izan zituen bere historian zehar. Tenplu hau **XIV. mendean** eraiki zen, bigarrenari erantsita, Erdi Aroko hirigunea muinoaren mendebalderantz zabaltzetik sortu zena. Nabarmentzekoak dira **arkupe zaharrek** (Errementari kalea) eskultura multzoa, XVIII. mende hasierako dorrea eta, haren barnealdean, hilobiak eta dekorazio heraldikoa.

2. FAROLEN MUSEOA



1895etik **Farolen Arrosarioa** osatzen duten **beira polikromatuzko piezak** gordetzen dira bertan. Prozesioa abuztuaren 4an egiten da, Andre Maria Zuriaren omenezko jaiak hasten diren egunean.



3. ERDI AROKO HARRESIA ETA ELUR-ZULOA

XI. mendeko lehen harresiaren berreskuratutako zatietako bat da. Birsorkuntzan zorrotasun historikoa nagusitu zen, kontserbatzen zen harlangaitzeko horma errespetatuz eta **zedrozko egitura** bat erantsiz **jatorrizko altuerara iritsi arte**. Horrela, erronda-pasabide zaharrek bat datorren pasabide-begiratoki bat sortu zen. Proiektu honek aipamen berezia jaso zuen Europa Nostra sariatian.

Harresiaren ondoko **elur-zuloak** XIX. mendeko **hiria izotzez hornitzeko** balio izan zuen.

4. MONTEHERMOSO JAUREGIA



XVI. mendearen hasieran eraiki zen eta bere izena Montehermosoko markesa titulutik dator, jauregiaren jabea izan zena, alegia. Denboraldi batez, Jose Bonaparteren gortearen egoitza izan zen. 1887an berrikuntza sakonak jasan zituen gustu neogotikoan, baina nabarmentzekoak dira gaur egun ere lau ertzeko dorreak baita erdiko patioa ere. Gaur egun, **kulturune** baten egoitza da.



6. SANTA MARIA KATEDRALA

XIII. mendean eraiki zen, aurreko tenplu baten gainean, eta, gaur egun, bere egitura-arazoez interes erantsia eman diote. Izan ere, **'Obretan eta irekita'** lelopean, zaharberritze lanak bisitatzea 800 urteko esperientzia da. Horrez gain, kriptatik dorrera, nabetik, erronda-pasabidetik eta triforiotik igarotzea ahalbidetzen du. Katedralak **Ken Follett** bezalako autoreak inspiratu ditu eta **Iparraldeko barnealdeko Done Jakue Bidearen testuinguruan Gizateriaren Ondare** izendatu zuten.

7. BURUILERIA PLAZA



Izen hau hartu zuen bere jatorriaren omenez: espazio honetan, antzina, buruileroek (oihal eta ehunen ehuleek) haien merkantzia salerosten zuten. Hiriko eraikin zibil zaharrena dago bertan, **Hurtado de Andatarren Dorrea** (XV. mendekoa). Beste eraikin aipagarri batzuk **El Portalón** eta **Gobeo-Guevara-San Juandarren armarridun etxea** dira. 'Denboraren harira' horma-irudia 'Hiri Margotua' ibilbidearen parte da.

8. BIBAT-ARABAKO ARKEOLOGIA ETA FOURNIER KARTA MUSEOA



Bere funtsak 20.000 karta baino gehiago ditu, **best kontinenteetako karta-sortak** barne, horietako batzuk hasiera batean British Museumean ikusgai izandakoak. 1.500 pieza arkeologiko ere baditu, Historiaurretik Erdi Arora bitartekoak. Museo honen egoitza **XVI. mendeko Bendaña Jauregiak** eta hari erantsitako Patxi Mangadoren eraikin garaiakide batek osatzen dute.

9. KORDOI ETXEA



XV. mendean eraikia, sarrerako arkuetako baten kordoi frantziskotarrari zor dio izena. Barnealdean, **XIII-XIV. mendeetako Erdi Aroko dorre bat** kontserbatzen da, lubaki batez inguratuta dagoena. Adriano VI.ak, eraikin honetan, 1522an, eliza katolikoko 218. aita santu bezala aukeratu izanaren albistea jaso zuen.



10. AIHOTZ PLAZA

Gasteizko aihotzari erreferentzia eginez deituta, plaza horretan hiriko Prokuradore Sindiko Nagusiak karguaren zina aihotz honekin egin ohi zuen eta. San Migel Elizaren kanpoaldeko absideak aihotzaren erreplika bat gordetzen du; jatorrizkoa, berriz, Udal Artxiboan gordetzen da. Plazatik **San Bizente Eliza** (XV. mendeko bukaerakoa, XIX. mendeko dorrearekin) eta **Goiuri jauregia** (XVI. mendekoa) ikus daitezke.

11. ARKUPEAK



5. ESKORIATZA-ESKIBEL JAUREGIA

1530 eta 1541. urteen artean eraiki zen, Victoria de Anda y Esquivelék eta Fernan Lopez de Escoriazak sustatuta, Ingalaterrako Henrike VIII.a eta honen lehen emazte Katalina Aragoikoaren medikua zena. BereziKI interesgarriKI dira jauregi honen **portada platereskoa** eta **arkuteria bikoitzeko barruko patioa**.

Eraikina lehen harresiari atxikita eraiki zen. Tarte honen zaharberritzea 1960ko hamarkadan egin zen, lonbardiarrin estiloan.




12. SAN MIGEL ELIZAKO BALKOIA KORRITUA



San Migel Elizaren aurreko espazioa (XIV-XVI. mendeak). Hiriko zaindaria den **Andre Maria Zuriaren horma-hobia** miresteko aukera ematen du (jatorrizko tailua Arte Sakratuaren Museoa dagi) eta **Andre Maria Zuriaren Plazaren**, Gasteizko elkargune nagusiaren, ikuspegi onenetako bat eskaintzen du. Balkoi horretatik, Andre Maria Zuriaren jaiei hasiera ematen dien txupinazoa botatzen da. Une horretan hasten da **Zeledon** San Migel dorretik jaisten.

Informazio guztia eguneratua hemen: www.vitoria-gasteiz.org/turismoa



GASTEIZ

Gozatu Green Hiriburuaz!



Andre Mari Zuriaren Plaza

Gasteiz berez da harrigarria. Europan, berdeguneen azalera handienetakoa duen hiria da; bai pasieran ibiltzeko, korrika egiteko edo bizikletaz ibiltzeko, bai hegaztiak ikusteko, bai zaldiz ibiltzeko.

'European Green Capital 2012'

sariak, 2016tik Turismo Helmuga Jasan-garria izateak eta 'Global Green City 2019' izendapenak, nazioarte mailan ingurumena-ekin konpromiso handienetakoa duen hirietako bat dela baieztatzen dute. Zatoz Gasteiz ezagutzera!



Eraztun Berdea

Festak eta kultur-adierazpenak. Goi-mailako proposamenak eskaintzen ditu ekitaldien egutegiak. Adibidez, Jazzaren Nazioarteko Jaialdia, Azkena Rock Festival, Magialdia, Kaldearte (arteak kalean), Nazioarteko Antzerki Jaialdia eta FestVal-a (telebista) daude. Baita kirol-txapelketak ere; adibidez: Martin Fiz maratoia edo Gasteizko Ironmana. Eta, jakina, gure kulturaz gozatzeko uneak: herri-kirolak, folklorea, San Prudentzio eta Estibalizko Andre Mariaren jaiak (Arabako zaindariak), Santiago eguna eta Andre Maria Zuriaren festak ahaztu gabe, non penintsularen iparraldeko jai-giro onenetako bat bitzitu ahalko duzun.




Muralismoa

Ondare historikoa. Gasteizko Erdigune Historikoa monumentu-multzo izendatu zuten 1997an; bere horretan kontserbatzen du Erdi Aroko trazadura,



eta bisitaria antzinako garaietara eramaten duten txokoak ezkutatzeko dituzte. **Santa Maria katedralaren** edo Katedral Zaharraren (XIII. mendea) eta **Erdi Aroko harresiaren** (XI. mendea) kasua da hori; biak ala biak nahitaez ikusi behar direnak. Hala ere, ezin ditzakegu ahaztu bere elizak eta Goiuri, Montehermoso eta Eskoriatza-Eskibel jauregi errenazentistak.




Santa Maria Katedrala

Olagibelen **Arkupeak** (XVIII. mendea) Erdi Aroko Arbendolaren eta Zabalguneko neoklasikoaren arteko malda libratzen du. **Andre Maria Zuriaren plazatik** eta **Espania plazatik**, merkataritza-giro handia duten oinezko-kaleetara irits zaitzake.

Natura. Gasteiz 115.000tik gora zuhaitz dituen hiriguneko kale eta parkeetan sakabanatuta, Eratzun Berdean daudenez gain, Parkeen artean, nabarmentzekoa da erdiguneko bertan **Florida Parkea**, XIX. mende hasierakoa. **Eratzun Berdean**, bestalde, oinezko-ibilbideen eta bizikleta-ibilbideen sare zabala dago eta, parkeen artean **Salburuko hezeguneak** aipamen berezia merezi du. Bertan, hegaztiak, oreina eta desagertzeko arrisku larriarri dagoen bisoi europarra beha ditzake. Hantxe dago **Ataria**, natura ezagutzeko zentroa.



Ataria



Andre Mari Zuriaren Jaia

Enogastronomia. Gastronomia Hiriburu Nazionala izan zen 2014an; izan ere, plater tradizionalenak eta euskal sukaldaritzaren sorkuntza berri-tzaileenak dasta daitezke Gasteizen, bai jate-txeetan, bai pintxoaren tabernetan, poltsiko guztietarako eskaintza zabalarekin. Hori guztia Arabako Errioxako ardoekin eta Arabako txakolinarekin batera. Eta, postreerako, hiriko gozogintza-tradizio apartak ematen dizkigun sorkuntza gozo askotarikoak. **Ardoaraba** azoka enogastronomikoari, **Pintxoaren Aste Nagusiari** eta **pintxo-poteari** esker, kalean bertan goza daitezke zapore onenez.



Pintxoak

Museoak. Arte garaikideko bilduma itzelarekin, aldi baterako erakusketa interesgarriak eskaintzen dizkigu **Artium museo-zentroak**. **Arte Ederren** museo eta **BIBAT** museo ere badauzkagu. Azken horretan, **Arkeologia museo** eta **Fournier Karta museo** biltzen dira, munduko karta-bilduma onenarekin. Maria Sortzez Garbiaren katedralak edo Katedral Berriak **Arte Sakratuaren museo** dauka. Halere, ezin ditzakegu museo bitxiak ahaztu, Arma museo edo **Farolen** museo, adibidez, beregeneroan bakarra izaki azken hori.



Artium

Arabako ERRIOXA

Gasteiztik hegoaldera, kilometro gutxira, mahastiz ereindako paisaiak goza dezakezu, bai eta bertako ardoak dastatu ere, upeltegi tradizionaletan zein Calatravak, Cheryk edo Mézieren diseinatutako eraikin abangoardistetan. Iparraldera kilometro gutxi batzuk eginez, **Aiarako baltararen** paisaia ederra aurki dezakezu; Arabako txakolinaren sortlekua.

Toki SINESTEZINAK

Añanako Gatzagak behatzea ahalbidetzen dizu **Gatz Haranak**. 6.500 urtetik gora dituzte aipatu gatzagek, eta, oraindik ere, **Añanako gatz** ekoizten dute, chef ospetsuenek erabiltzen dutena. **Arabako lautadan**, toki hauek bisitatu daitezke: **Estibalizko Andre Mariaren basilika** erromanikoa, **Aguraingo** hiribildua, **Gazeo** eta **Alaizako** margoak eta **Egilazeko** trikuharria.



IBILBIDE ETA BISITA GIDATUAK

Ibilbide eta bisita gidatuen eskaintza handia dago, eta, horiekin, ikuspuntu guztietatik ezagutu ahalko duzu hiria.

Erdi Aroko Erdigunea ezagutzeko bisitak; maitasun- istorioen haria, literatur-lanen eszenatokiak edo legendetako pertsonaiak jarraituz, hiria ezagutzeko bisitak; Santa Isabel hilerria edo Horma-irudien ibilbide bitxia ezagutzeko bisita gidatuak. Baita, korrika egin edo bizikletaz ibili bitartean, hiria zeharkatzeko proposamenak ere.

ENOGASTRONOMIA

Hornidura-azoka bisitatzeaz gain, ezin ditzakegu ibilbide gastronomikoak eta gidatutako dastaketak ahaztu; izan ere, Gasteizko produktu onenez eta giro bikainenez gozatu ahalko dugu horietan.

Non jan, atsedean hartuz kafe bat non hartu, oroigarri polit bat non erosi edo gaueko giroaz non gozatu jakin nahi baduzu, eskatu IZARREN GIDA turismo-bulegoan. Gasteiz On Merkatarien Elkartearen ekimena da aipatu gida.

MUSEOAK ETA KULTUR-ZENTROAK

Artium Arte Garaikidearen Euskal zentro-museoa / Bibat Arkeologia museoa eta Fournier Karta museoa / Arte Ederren museoa / Natura Zientzien museoa / Arma museoa / Arte Sakratuaren museoa / Farolen museoa / Montehermoso Kulturunea / ATARIA Salburuko Hezeguneen Interpretazio Zentroa.

BALIABIDEEN GIDA

Larrialdiak, Ertzaintza.112

Pediatriako larrialdiak: 945 00 70 00

Radiotaxi. 945 27 35 00


Radio-taxi Celedón 945 27 20 00

Udaleko ibilgailu-gordailua. Agirrelanda 8.
945 161 100 / 945 158 000

Renfe. 912 320 320

Aireportua. 945 163 500 / 902 404 704

Autobus-geltokia. 945 161 666



**VITORIA
GASTEIZ**
turismo
& convention bureau



EUSKADI
BASQUE COUNTRY



BIOSPHERE
certified destination

Europako Hiriburu Berdea 2012.
Vitoria-Gasteizek 2016tik dauka **Biosphere Responsible Tourism** ziurtagiria, helmuga turistiko jasangarria dela egiaztatzen duena.

INFORMAZIO GUZTIA HEMEN

Turismo-bulegoa, Espainia plaza 1

945 16 15 98 / 945 161 599

turismo@vitoria-gasteiz.org

Irekitzeko orduetgia: Al-Lr 10:00etatik 19:00etara

Igande eta jaiegunetan: 11:00etatik 14:00etara

www.vitoria-gasteiz.org/turismoa



turismo_vitoria



turismovitoria